

## THE COLLINSON GROUP LIMITED TALDEAREN PRIBATASUN POLITIKA

Collinson Group Ltd. taldearen COLLINSON SERVICE SOLUTIONS LIMITED enpresan («gu») zure pribatutasuna babestu eta errespetatuko dugu. Pribatutasun Politika honetan eta Erabilera Baldintzetan azalduta dago nola erabiltzen ditugun zuk gure webgunea, zerbitzuak edo produktuak erabiltzen dituzunean biltzen ditugun datu pertsonal guztiak.

- **Zure datu pertsonalen bilketa eta erabilera**

Kasu hauetan bakarrik bildu eta erabiltzen ditugu zure datu pertsonalak:

- Zuk onartu baduzu; edo
- Beharrezkoa bada gure zerbitzua edo produktua eskaintzeko, eta zu ados zaude horrekin; edo
- Beharrezkoa bada bidaia esperientzien hornitzaile gisa dauzkagun legezko betebeharrak betetzeko; edo
- legezko arrazoi bat badaukagu hori egiteko, iruzurra prebenitzea edo zorrak kobratzea, besteak beste.

- **Zer datu pertsonal mota erabiltzen ditugu?**

Online, posta elektronikoz, telefonoz edo posta arruntez gurekin interakzioan aritzen zarenean zuk zeuk ematen dizkiguzun datu pertsonalak bildu eta erabiltzen ditugu. Honako datu pertsonal hauek izan daitezke:

- Izen-abizenak;
- Helbide elektronikoa;
- Telefono mugikorraren zenbakia;
- Informazio finantzarioa (adibidez, ordaintzeko txartela edo bankuko kontua);
- Gailuak emandako zenbait datu, hala nola IP helbidea, gailuaren IDa, gailu mota eta kokapen datuak.

- **Nola erabiltzen ditugu zure datu pertsonalak?**

Helburu hauetarako erabil ditzakegu bildutako datu pertsonalak:

- Gure webgunera sartzeko aukera emateko;
- «LoungeKey Pass» programaren baitako bidaia esperientziak eskaintzeko;
- Eskatu diguzun informazioa emateko, adibidez, aurrekontuak, zerbitzu dokumentazioa, liburuxkak, informazio buletinak eta eskaeren erantzunak;
- Gure produktu eta zerbitzuei buruz egiten diguzun galdera orori erantzuteko;

- Legezko betebeharrak betetzeko;
- Iruzurra antzeman eta prebenitzeko.

- **Datu pertsonalak partekatu eta transferitzea**

Ez ditugu zure datu pertsonalak inorekin partekatuko, baldin eta zu ez bazaude ados, baldin eta truke hori ez bada beharrezkoa zurekin daukagun kontratua betetzeko, edo baldin eta legeak ez badigu uzten edo ez bagaitu behartzen. Horrez gainera, zure datu pertsonalak gure segurtasun prozedurak eta politikak betetzen dituzten erakunde hautatuekin bakarrik partekatuko ditugu.

Erakunde hauekin parteka ditzakegu zure datu pertsonalak:

- Gure enpresa taldeko beste kide bat, zerbitzuak ematen lagundu diezagukeena;
- Gure zerbitzu hornitzaileak eta azpikontratatistak, gure zerbitzuak aurkezten laguntzen digutenak;
- Erakunde arautzaile bat edo legezko betebeharrak bat betearazten digun beste autoritate bat;
- Iruzurra prebenitzeko edo zorrak kobartzeko erakundeak, gure interes legitimoak babesteko beharrezkoa bada.

Erakunde horietako batzuek Europako Esparru Ekonomikotik kanpo dagoen herrialde batean izan dezakete egoitza, edo datuak babesteko bestelako legeak aplikatzen diren herrialde batean. Zure eskubide eta askatasunen babes maila egokia bermatzen badute bakarrik transferituko ditugu zure datu pertsonalak herrialde horretara, edo zuk baimena eman badiguzu, edo erakunde hori kontratu bidez behartuta badago Europako Esparru Ekonomikoko datu babesarako legea betetzera.

Ez dizkiogu inori salduko zure datu pertsonalak.

- **"Datu pertsonalak babestea eta biltegitratzea**

Pribatutasun politika honen arabera bildu eta erabilitako datu pertsonalak Erresuma Batuan kokatutako zerbitzari seguruetan biltegitratzen dira.

Biltzen ditugunetik suntsitzen ditugun arte, prozedura eta teknologia egoki eta zentzuzkoak erabiltzen ditugu zure datu pertsonalekin, horien segurtasuna, eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta zuzentasuna babesteko, eta legez kanpo edo baimenik gabe erabil daitezzen edo nahigabe galdu edo honda daitezzen ekiditeko.

Datu pertsonalak zifratuta transmititzen dira Internet bidez.

Zure datu pertsonal jakin batzuetara sartzeko baimena ematen dizun pasahitz bat eman badizugu

(edo aukeratu baduzu), zu zara pasahitz horren konfidentziasunaren erantzulea. Mesedez, ez partekatu pasahitza inorekin.

- **"Datu pertsonalak ezabatu eta gordetzea"**

Zertarako bildu ziren kontuan hartuta, helburu horietarako beharrezkoa den denboran bakarrik gordeko ditugu zure datu pertsonalak, eta gure sistemetatik ezabatuko ditugu jada beharrezkoak ez diren datu pertsonal guztiak.

Behin epe hori igarota, legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa izango balitz bakarrik gordeko ditugu zure datu pertsonalak.

- **Cookieen erabilera**

Gure webgunean cookieak erabiltzen ditugu, zure erabiltzaile esperientzia hobetzeko; izan ere, cookiei esker, gure webguneak «gogoratu egingo zaitu», bai bisita batek iraun bitartean («saioko cookie» bat erabiliz), bai hainbat bisitatan («cookie iraunkor» bat erabiliz). Era berean, gure zerbitzuak edo produktuak zure kokapenaren, zure nabigazio ohituren edo beste faktore batzuen arabera segmentatzeko cookieak ere erabil ditzakegu.

Egin [klik hemen](#) gure cookie politika irakurtzeko; bertan azalduta dago zer egiten dugun eta nola alda dezakezun cookieen konfigurazioa.

- **Zure eskubideak**

Eskubidea duzu nahi duzunean eta doan zure datu pertsonalak ikusteko bide hauetakoren bat erabiliz:

- Zuri buruz dauzkagun datu pertsonalen kopia bat eskatzea. Zentzuzko tarifa bat kobra dezakegu kopia gehiago emateagatik, eta uko ere egin diezaiokegu informazio hori emateari, zure eskaerak justifikatu gabeak edo gehiegizkoak badira;
- Zure datu pertsonalak zuzentzea, okerrak edo osatugabeak badira;
- Datu pertsonalak ezabatzea eskatzea, jada ez denean beharrezkoa horiek jatorrian izan zuten helburuetarako gordetzea, baldin eta lege ez bagaude gordetzera behartuta;
- Datu pertsonalen ondorengo erabilera mugatzea. Aldez aurretik zerbitzu edo produktu bat kontratatu baduzu gurekin, honek berekin ekar dezake zerbitzu edo produktu horren ezeztapena;
- Merkaturatze zuzenerako baimena ukatzea, profil lanketa barne;
- Zure datu pertsonalak zure xedeetarako lortu eta berrerabiltzea, eramangarritasun baldintza jakin batzuen babespean;

- **"Nola jarri gurekin harremanetan?"**

Datuak Babesteko Legearen helburuetarako, honako hau da datuen erabileraren erantzulea: COLLINSON SERVICE SOLUTIONS LIMITED, Collinson Group Ltd taldeko enpresa bat, Ingalaterran eta Galesen inskribatuta dagoena 02474708 identifikazio fiskaleko zenbakiarekin eta bulegoak helbide honetan dituena: Cutlers Exchange, 123 Houndsditch, Londres, EC3A 7BU, Erresuma Batua.

Zure eskubideetako edozein baliatzeko, gure pribatutasun politikari buruzko zalantzaren bat argitzeko edo zure datu pertsonalen erabilerari buruzko kexa bat aurkezteko, jar zaitez harremanetan Datuen Babeserako Departamentuarekin. Hauek dira harremanetarako datuak:

Datuen Babeserako Departamentua  
Data.Protection@CollinsonGroup.com

Gure erantzunarekin pozik ez bazaude, harremanetan jar zaitezke Informazio arloko Ordezkararen Bulegoarekin (IOB). Informazio gehiago nahi baduzu, bilatu hemen: <https://ico.org.uk/>.

- **Beste webgune batzuk**

Gure webgunean beste webgune batzuetarako estekak egon daitezke. Pribatutasun politika hau gure webguneari, zerbitzuei eta produktuei bakarrik aplikatzen zaie; beraz, beste webgune batzuetan sartzean, horien pribatutasun politikak irakurri beharko dituzu.

- **Aldaketak gure politikan**

Aldian-aldian aztertzen dugu gure pribatutasun politika, eta gure webgunean argitaratzen ditugu bertsio berri guztiak. Pribatutasun politika 2018ko maiatzaren 1ean eguneratu genuen azkenekoz.